

# KOLORE BATEN JABE

Testua eta irudiak: LEO LIONNI

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorra. 22 x 22 cm. 36 or. 14,00 €

[Kolare baten jabe](#) (euskara)

ISBN 978-84-9172-266-3. Album irudidunak. Gaur egunko klasikoak.

[Su propio color](#) (gaztelania)

ISBN 978-84-1343-147-5. Album ilustrado. Clásicos contemporáneos.

[Unha cor propia](#) (galegoa)

ISBN 978-84-1343-146-8. Album ilustrado. Tras os montes.

[Un color propi](#) (katalana)

ISBN 978-84-18558-37-5. Àlbum ilustrat. Clàssics contemporanis.

[Uma cor apenas sua](#) (portuges)

ISBN 978-989-749-157-3. Album ilustrado. Clássicos contemporâneos.

*Papagaiak berdeak dira.*

*Urrearrainak gorriak dira.*

*Elefanteak urdinak dira.*

*Txerriak arrosak dira.*

*Animalia guztiak dira kolore baten jabe,*

*kameleoiak izan ezik.*

Leo Lionniren maisutasunak ez dauka su artifizialen beharrik irakurleari jakinarazteko kameleoiaren emozioak egilearenak direla eta animaliatxoaren ziurtasun ezak ere partekatuak direla. "Kolore baten jabe" obrak transmititzen digu izakien bizitzaren ezaugarri diren bakartasun-zentzia eta, aldi berean, kidetasunarena eta ziklikotasunarena. Bere identitatearen bila dabilen kameleoi baten abentura kontatzen digu, eta azkenean nola ohartzen den garrantzitsuena ez dela kolorez aldatzeari uztea, baizik eta kolorea beste norbaitekin partekatzea.

Irudi xume eta funtsezkoak ditu, zeinetan kolorea eta gardentasunak gailentzen diren. Haiekin batera, testu neurtu-neurtu ere bai, aldi berean xaloa eta sakona den album honetan. Istorio honek, egilearen beste guztiek bezala animalia xumeak dituena protagonistatzat, askotariko irakurketa-maila ditu, eta, narrazioaren eraikuntza bikainari esker, gure irakurleak izango dira liburuari galdezka etorriko zaizkionak.



## Kolare baten jabe

Leo Lionni



Kalandraka

Pamiela  
etxea

■ **Galak:** identitatea, autoestimua, aniztasuna, adiskidetasuna, sozializazioa.

■ **Gomendatutako adina:** 3 urtetik aurrera.

■ **Alderdi azpimarragarriak:** animaliak, kameleoiak, koloreak; beste hauen egile berarena: "Frederick", "Munduko etxerik handiena", "Arrarik arra", "Urdin Txiki eta Hori Txiki", "Matiasen ametsa", "Alex eta sagu mekanikoa", "Nadarin", "Kornelio" eta "Koloreak" y "Zenbakiak" sailak (Kalandraka).

■ **Liburu-aurrerapena:**

<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/kolare-baten-jabe-eusk>

### Leo Lionni

(Amsterdam, Herbehereak, 1910 - Toscana, Italia, 1999)

Leo Lionni arte-giroan hazi zen –ama opera-kantaria izan zen; osaba Piet, berriz, margolaritza-zale handia-eta oso gaztetatik jakin zuen huraxe izango zela bere zoria. Jaso zuen formakuntza, aldiz, ez zen artistikoa izan, Ekonomian doktratu baitzen. 1931n Milanen bitzen hasi zen eta lehen harremanak izan zituen diseinu grafikoarekin. 1939an Ameriketara joan zenean, Filadelfiako publizitate-agentzia batean, Olivetti korporazioan eta Fortune aldizkarian lan egin zuen. Artista-ospea ere lortu zuen eta bere margolanak galeriarik onenetan erakusten hasi ziren, Estatu Batuetatik Japoniaraino. Lionnik berak noizbait esan zuenez, "Nolabait, nonbait, arteak haurtzaroko sentimenak adierazten ditu beti". Haurrentzat idatzi zuen lehen liburua ia ustekabeen sortu zen 1959an: tren-bidaia batean, zetazko paper zatiz egindako istorio baten bidez bilobak entretentzea otu zitzaion. Halaxe sortu zen "Urdin Txiki eta Hori Txiki", eta haren atzetik mundu osoko adituek txalotutako 40tik gora obra gehiago. Eskultore, diseinatzaile, margolari eta ilustratzaile gisa egindako merituengatik Arte Grafikoen Amerikar Institutuaren Urrezko Domina jaso zuen 1984an.

www. **kalandraka**.com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela**.com  
etxea  
soltxate@pamiela.com